

<b>EZ OHIKO BILKURA</b>		<u>Akta Zkia.</u> <b>03/2016</b>	
<b>TOKIA</b>	<b>EGUNA</b>	<b>Hasiera ordua</b>	<b>Amaiera ordua</b>
<b>Udalbatza aretoa</b>	<b>2016ko martxoaren 16an</b>	<b>19:00</b>	<b>20:00</b>
<b>BERTARATUAK</b>			
<b><u>IDAZKARIA</u></b> Amaia Arbulu Ormaetxea and.		<b><u>BATZORDEKIDEAK</u></b>  Rolando Isoird Refoyo (EAJ-PNV) Miguel Angel Aguado Villazan (EAJ-PNV) Alex Perez de San Roman Miño (EAJ-PNV) Lorea Rementeria Totorika (EAJ-PNV) Aitzol Gerenabarrena Amantegi (EAJ-PNV) Karmen Amezua Urzelai (EH-BILDU) Gorka Camara Hierro (EH-BILDU) Valentin Esteban Gutierrez (EH-BILDU) Fco. Jose del Pino Escobar (PSE-EE-PSOE)	

**1. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA ATZERA BOTATZEA ETA ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOETAN TERRAZA JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONARPENA**

Alkateak erabilera publikoko guneeetan terrazak ezartzeko udal-ordenantza arautzailearen kontra aurkezturiko alegazioaren berri eman du; bertan, desadostasuna adierazten da ordenantzan ezarritako irekiera- eta itxiera-ordutegiei dagokienez.

Arkitekto Teknikoaren txostenaren berri eman du; adierazten du Eusko Jaurlaritzak ezarritako ordutegiak betetzen direla eta proposatzen du berauei eustea.

Karmen Amezua Urzelaik adierazi du, EH-BILDUREN izenean, abstenitu egingo direla, ez baitute parte hartu prozesuan

**1. DESESTIMAR LA ALEGACIÓN PRESENTADA Y APROBAR DEFINITIVAMENTE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN ESPACIOS DE USO PÚBLICO**

El Alcalde da cuenta de la alegación presenta contra la ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en espacios de uso público, en la cual se manifiesta la disconformidad con los horarios de apertura y cierre que se establece.

Da cuenta del informe del Arquitecto Técnico en que se indica que se cumple con los horarios establecidos por el Gobierno Vasco y propone que se mantengan los horarios.

Karmen Amezua Urzelai en nombre de EH-BILDU dice que se van a abstener ya que no han tomado parte en el proceso.

Fco. José del Pino Escobarrek (PSE-EE) adierazi du ados dagoela EH-BILDUREKIN eta EAJK bakarrik egindako lana izan dela.

Gaia bozketara eramanda, aldeko 5 boto (EAJ-PNV), 4 abstentziorekin (3 EH-BILDU, 1 PSE-EE) eta kontrako botorik gabe, alegazioa gaitzetsi eta behin betiko onartu da erabileraren publikoko guneetan terrazak ezartzeko udal-ordenantza arautzailea.

**2. ONARTU, HALA BADAGOKIO, TRAFIKOKO BURUZAGITZAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ESPAINIAKO UDALERRIEN ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ADMINISTRAZIOKO INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA ELKARLAGUNTZARAKO**

Alkateak barkamena eskatu du hitzarmena gaztelaniaz dagoelako osorik, eta, ondoren, informazioa partekatze eta elkarren arteko lankidetzaren administratiborako bere egunean Udalerriaren Espainiako Federazioarekin (FEMP) eta Trafikoko Buruzagitzarekin sinaturiko hitzarmenaren edukien berri eman du.

Hitzarmena sinatuta, berriztarrek ez lukete Bilboraino joan beharko administrazio-izapideak egitera, Udaletxean egingo liratekeelako. Horrez gain, diru-bilketarako sailak eguneratuta izango lituzke ibilgailuen erroldako datuak eta udaltzainek ibilgailu guztien datuak eskuratuko lituzkete.

Karmen Amezua Urzelaik adierazi du, EH-BILDUREN izenean, hitzarmenak euskaraz egon beharko lukeela eta eskaera formalak egin beharko lituzkeela.

Gaia bozketara eramanda, aldeko 9 botorekin (5 EAJ-PNV, 3 EH-BILDU eta 1 PSE-EE), abstentziorik eta kontrako botorik gabe, hitzarmena sinatzea onartu da.

Fco. José del Pino Escobar (PSE-EE) dice que está de acuerdo con EH-BILDU y que es un trabajo echo unicamente por el PNV

Se procede a la votación con el resultado de 5 votos a favor (5 EAJ-PNV), 4 Abstenciones (3 EH-BILDU, 1 PSE-EE) y ninguno en contra; con lo que queda rechaza la alegación y aprobada la ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en espacios de uso público.

**2. APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL ORGANISMO AUTÓNOMO JEFATURA CENTRAL DE TRÁFICO Y LA FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE MUNICIPIOS Y PROVINCIAS PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN Y LA MUTUA COLABORACIÓN ADMINISTRATIVA**

El alcalde pide perdón porque el convenio se encuentra integramente en castellano y pasa a dar cuenta del contenido del convenio firmado en su día con la Federación Española de Municipios (FEMP) y la Jefatura de Tráfico para intercambio de información y mutua colaboración administrativa.

Con la firma del convenio los/las berriztarras no tendrían que ir hasta Bilbao a realizar los trámites administrativos, se realizarían en el Ayuntamiento. Además el área de recaudación tendría los datos del padrón de vehículos actualizado y los municipales podrían acceder a los datos de todos los vehículos.

Karmen Amezua Urzelai en representación de EH-BILDU dice que el convenio debería de estar en euskera y que se debería solicitar formalmente.

Se procede a la votación con el resultado de 9 votos a favor (5 EAJ-PNV, 3 de EH-BILDU y 1 PSE-EE), ninguna Abstenciones y ninguno en contra; por lo que se aprueba la firma del convenio.

**3. ONARTU, HALA BADAGOKIO, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN LUZAPENA, 2016TIK 2019RA BITARTEKOA**

Alkateak Berdintasun Teknikariaren txostenaren berri eman du; jakinarazten da hainbat arrazoi tarteko plana ez dela osorik burutu eta hainbat ekintza egiteke geratu direla. Ondorioz, proposatu du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana 2016tik 2019ra luzatzea

Udaleko osoko bilkurak aho batez, udalbatza osatzen duten hamaika zinegotzietatik osoko bilkurara etorri diren bederatzi zinegotziek, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako IV. Planaren luzapena, 2016tik 2019ra bitartekoa onarpena eman dute

**4. ONARTU, HALA BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ARAUTZEKO UDAL ARAUDIAREN ALDAKETA PUNTUALA**

Alkateak Etxez etxeko laguntza arautzeko udal araudiaren aldaketa proposamenaren berri ematen du:

Lehen titulua, 3. artikulua: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa, gehitu beharrezko testua:

Nabarmendu behar da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzu karteraren urriaren 6ko 185/2015 dekretuaren arabera, zerbitzu honen hartzaileek ez dute adin mugarik, arrisku egoera eta babes falta arina edo ertaina duten adin txikikoen familia unitateek be eskura dezateke, familia elkarbizitza egokia izateko laguntza behar dutenean

6. artikulua. Zerbitzu eta prestazioen aldi bereko

**3. APROBAR, SI PROCEDE, LA PRÓRROGA DEL IV. PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DESDE 2016 A 2019**

El alcalde da cuenta del informe del Técnico de Igualdad en el cual se informa que debido a varias causas el plan no se ha ejecutado en su totalidad, quedando pendientes varias acciones y por ello proponen prorrogar el IV. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres desde 2016 a 2019

El Ayuntamiento pleno por unanimidad de los nueve concejales que asisten al pleno de los once que componen la Corporación acuerda aprobar la prórroga del IV. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres desde 2016 a 2019.

**4. APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DE LA AYUDA DOMICILIARIA (SAD)**

El Alcalde da cuenta de las modificaciones propuestas al Reglamento Municipal Regulador de la Ayuda Domiliaria (SAD), estas serían:

Título Primero, Artículo 3. Definición del Servicio de Ayuda a Domicilio, texto a añadir

Es importante señalar que de acuerdo al Decreto 185/2015 del 6 de octubre de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales ,se trata de un servicio cuya población destinataria no tiene límite de edad, por tanto también va dirigido a unidades familiares con menores a cargo en situación de riesgo de desprotección leve o moderado que necesiten un apoyo domiciliario para adquirir o mejorar las capacidades para una adecuada convivencia familiar

Artículo 6. Uso simultáneo de servicios y

erabilera. Gehitu beharrezko testua:  
Murrizketa horrela egingo da:

gradu	1	2	3
Ordu	11	22	33

8. artikulua: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak, 2) Zerbitzuaren maiztasuna. Ezabatu beharrezko testua:

- Mendekotasun Handiko III. graduaren 2. mailan baloraturiko pertsoneri: 77 ordu hilean.
  - Mendekotasun Handiko III. graduaren 1. mailan baloraturiko pertsoneri: 55 ordu hilean.
  - Mendekotasun Gogorreko II. graduaren 2. mailan baloraturiko pertsoneri: 44 ordu hilean.
  - Mendekotasun Gogorreko II. graduaren 1. mailan baloraturiko pertsoneri: 33 ordu hilean.
  - Mendekotasun ertaineko I. graduan baloraturiko pertsoneri: 22 ordu hilean.
- Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotzat jotzen ez dituen pertsoneri gehienez 22 ordu emango zaizkie hilean.

Eta gehitu:

- III. graduko mendekotasun handiko pertsoneri, 77 ordu hilean gehienez eta 55 ordu hileko batzbestekoa.
  - II. graduko mendekotasun gogorra duten pertsoneri, gehienez 44 ordu hilean eta 33 ordu hileko batzbestekoa.
  - I. Graduko mendekotasun ertaina duten pertsoneri, hilean gehienez 33 ordu eta 22 ordu hileko batzbestekoa.
- Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotzat jotzen ez dituen pertsoneri edo mendekotasun

prestaciones. Añadir el texto:

La aminoración se hara de la siguiente manera:

grado	1	2	3
Horas	11	22	33

Artículo 8. Características del Servicio de Ayuda a Domicilio, 2) Intensidad del servicio. Eliminar el texto

- Para las personas valoradas en el Grado III de Gran dependencia, nivel 2: 77 horas mensuales.
  - Para las personas valoradas en el Grado III de Gran Dependencia, nivel 1: 55 horas mensuales.
  - Para las personas valoradas en el grado II de dependencia Severa, nivel 2: 44 horas mensuales.
  - Para las personas valoradas en el grado II de dependencia Severa, nivel 1: 33 horas mensuales.
  - Para las personas valoradas en el grado I de dependencia moderada: 22 horas mensuales.
- A las personas no calificadas como dependientes conforme a lo establecido en la Ley 39/2006, de 14 de Diciembre, el máximo de horas a prestar será de 22 horas mensuales.

Y añadir el texto:

- Para las personas valoradas en el Grado III , Gran dependencia, 77 horas mensuales máximo y 55 horas mensuales de media
  - Para las personas valoradas en el grado II , dependencia Severa, 44 horas mensuales. máximo y 33 horas mensuales de media
  - Para las personas valoradas en el grado I de dependencia moderada 33 horas mensuales. máximo y 22 horas mensuales de media
- A las personas no calificadas como dependientes conforme a lo establecido en la Ley 39/2006, de 14

arriskurik ez dutenei, hilean 22 ordu gehienez eta batezbestekoa 12 ordu hileko.

Adin txikikoak dituzten eta arrisku egoeran dauden familia unitateek, mendekotasun gradurik ez badago, Udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena beharko dute, zerbitzuaren premia azalduz.

9. artikulua: Erabiltzaileak: zerbitzua eskuratzeko baldintza orokorrak. A) Erabiltzaileak. Gehitu beharrezko testua:

ELZ erabiltzaileak izan daitezke adin txikikoak dituzten eta arrisku egoeran dauden familia unitateak, beti ere Gizarte Zerbitzuek laguntza horren premia argudiatzen badute.

II.Eranskina, ekarpen ekonomikorako baremoa

Ondare muga aldatu

Elkarbizitza unitatea	Ondare muga
1	36.321,60€
2	45.402.00€
3	49.034,16 €

Udaleko osoko bilkurak aho batez, udalbatza osatzen duten hamaika zinegotzietatik osoko bilkurara etorri diren bederatzi zinegotziek, araudiaren onarpena eman dute eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 30 eguneko epean erreklamaziorik ez balego, araudia behin-betiko onartuko da.

**5. ONARTU, HALA BADAGOKIO, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK PLATAFORMAK AURKEZTUTAKO MOZIOA A-8 BIDESARIAREN INGURUAN**

de Diciembre, o en riesgo de dependencia el máximo de horas a prestar será de 22 horas mensuales. , y 12 horas mensuales de media

En el caso de Unidades Familiares en situación de riesgo que tengan menores a cargo, en los que no hay grado de dependencia , será necesario un informe favorable de los Servicios Sociales Municipales, donde conste la intensidad del Servicio

Artículo 9. Determinación de las personas usuarias: requisitos generales de acceso. A) Determinación de las personas usuarias. Añadir el texto

Tambien podrán ser usuarias del SAD unidades familiares en situación de riesgo con menores a cargo , con necesidad de apoyo en el domicilio asi acreditado por el Trabajador Social

Anexo II, Baremo de aportación económica

Cambiar el límite patrimonial

Unidad Convivencial	Límite patrimonial
1	36.321,60€
2	45.402.00€
3	49.034,16 €

El Ayuntamiento pleno por unanimidad de los nueve concejales que asisten al pleno de los once que componen la Corporación acuerda aprobar la modificación del reglamento y ordenar su publicación en el B.O. de Bizkaia por un periodo de 30 días y en caso de que no se produzcan reclamaciones en dicho período, la normativa quedará aprobada definitivamente.

**5. APROBAR, SI PROCEDE, MOCIÓN PRESENTADA POR LA PLATAFORMA KEXAK ETA IRADOKIZUNAK SOBRE EL PEAJE DE LA A-8**

Irakurtzen da Plataforma Kexak eta Iradokizunak plataformak aurkeztutako mozioa A-8 bidesariaren inguruan, eta hitzez-hitz diona:

*Bizkaiko Foru Aldundiak %2,5eko igoera ezarri du A-8aren bidesarian Usansolo - Ermua tartean, hauxe delarik Bizkaian A-8an kobratzen den tarte bakarra.*

*Igoera honek eragin ekonomiko nabarmena du Durangaldeko eta Lea Artibaiko biztanleentzat. Horrexegatik, inguru hauetako herritarrek, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK kolektiboaren bitartez, sinadura-bilketa jarri dute abian sarean: une honetan 13.600 sinaduratik gora jaso dira Durangaldean eta Lea Artibain.*

*Bidesariaren kontrako herri-plataforma bat eratu da aipatutako azpiegituran ezarri den igoeraren kontra, izan ere, A-8ko zati honetan bidesaria kobratzen jarraitzeak, batez ere, Durangaldeko eta Lea Artibaiko herritarrei, ezberdin jokatzeari suposatzen du A-8 autobidea erabiltzen duten gainerako bizkaitarrekiko.*

*Hortaz, Durangaldeko eta Lea Artibaiko herritarrek diskriminatu egiten dira herrialdeko hiriburura zuzentzen direnean, izan ere, A-8 autobidea erabiltzeagatik ordaindu behan'a daukagu edo, beslela, autoz gainezka izaten den N-634 errepide ez oso segurua hartu behar dugu.*

*Honegatik guztiagatik, hauxe ESKATZEN DIOGU udal honetako osoko bilkurari:*

- *Aitortu dadila A-8 autobidea ordaindu behar izateak diskriminazioa eragiten diela Durangaldeko eta Lea Artibaiko biztanleei gainerako bizkaitarrekiko, ordaindu behar duguna bikoiztu egiten delako.*
- *A-8 autobidearen azpiegituraren mantenua, Durangaldeko eta Lea Artibaiko biztanleei diskriminaziorik eragingo ez dien finantzaketa-sistema baten bidez egin dadila, alegia, diskriminaziorik egin ez dadila Bizkaiko gainerako eskualdeekiko.*

Se da lectura a la moción presentada por la Plataforma Kexak eta Iradokizunak sobre el peaje de la A-8 que copiada literalmente dice:

*Que se ha producido una subida, por parte de la Diputación Foral, del 2,5% en el peaje de la A-8, en el tramo Usánsolo - Ermua, único sujeto a cobro de toda la A-8 a su paso por Bizkaia.*

*Que esta subida tiene una clara incidencia económica para los vecinos/as del Duranguesado y Lea Artibai por lo que estos/as han protestado sumándose a la recogida de firmas que el colectivo KEXAK ET A IRADOKIZUNAK ha canalizado a través de la red y que, a la fecha de este escrito suman más de 13.600, la mayoría del Duranguesado y Lea Altibai.*

*Que se ha constituido una Plataforma Popular contra el peaje en dicha infraestructura que recoge el sentir contrario a esta subida y al hecho de seguir cobrando, principalmente a los vecinos/as del Duranguesado y Lea Altibai, por el uso de ella frente al resto de Vizcaínos/as que también utilizan la A-8 sin costo alguno.*

*Que consideramos que tales circunstancias colocan a los vecinos/as del Duranguesado y Lea Artibai en una injusta discriminación en la comunicación rápida y segura hacia la capital del herrialde ya que, nos obliga ó bien a pagar por ello ó a transitar por una congestionada y nada segura N-634.*

*Por todo esto SOLICITAMOS al Pleno de este ayuntamiento:*

- *Que se reconozca la discriminación que supone para los habitantes del Duranguesado y Lea Artibai el pago en el A-8 con respecto al resto de vizcaínos/as, ya que nos significa una doble contribución para los vecinos/as afectados.*
- *Que el mantenimiento de dicha infraestructura se haga mediante un sistema de financiación que no suponga una discriminación para los habitantes del Duranguesado y Lea Altibai con respecto al resto de las comarcas de Bizkaia.*

- *Gai honetan eskumena duten Bizkaiko Balzar Nagusiei eskatzea 3/2010 Foru Araua aldatu dezatela, A-8 autobidearen ordainketa ezartzen duena alegia.*

*Durango, 2016ko otsailaren 17a*

Alkateak dio bozka egingo dugula eta gero bakoitzak nahi duena komentatu dezala.

Karmen Amezua Urzelaik (EH-BILDU) dio zerbait esatekotan aurretik. "Nik uste nuen, norbait etorriko zela hau defendatzen. Ez da inor etorri baina gu ados gaude. Ekimen herritar bat da. Durangaldeko jendea kontra dago igoera honekin. Plataforma hau eratu zen eta eskatzen dutena justua da. Gu horren alde gagoz. Gure eskualdea diskriminatuta dago Bizkaiko beste eskualdeekin konparatuz. Hausnarketa bat egin behar da. Badakigu beste mozio alternatibo bat dagoela. Eta ez dugu ulertzen, zer dagoen mozio honetan, herritarrek aurkeztutako mozio honetan, onartezina dena, zuek beste bat aurkezteko. Eskaera hau orokorra da. Diskriminatuta gaudela eta neurri orokor batzuk ezartzen ditu".

Alkateak dio berak ez duela azalpenik eman beharrik. Abstenitu egingo direla. Ez dutela kontra bozkatuko.

Fco. José del Pino Escobarrek (PSE-PSOE-EE) dio ez daukala mozio honen kontra ezer, eta hor daudela mozio biak.

Ondoren, bozketa egin da eta emaitza: aldeko botoak hiru (3 EH-BILDU) eta abstentzioak 6 (5 EAJ-PNV eta 1 PSE-EE), beraz mozioa onartzen da.

**6. ONARTU, HALA BADAGOKIO, EAJ-PNV ETA PSE-EE-PSOEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, AP8 BIDESARIAREN GAINEAN**

- *Que inste a las Juntas Generales de Bizkaia competentes en este asunto, a lamodificación de la Norma Foral 3/2010 en la que hace referencia al pago de la A-8.*

*Durango, a 17 de febrero de 2016*

El alcalde dice que se proceda a la votación y luego que cada uno comente.

Karmen Amezua Urzelai (EH-BILDU) dice que de decir algo, antes de la votación. "Creía que vendría alguien a defender esta moción. No ha venido nadie, pero nosotros estamos de acuerdo. Es una iniciativa ciudadana. La gente del duranguesado esta contra esta subida. Se forma la plataforma y lo que piden es justo. Nosotros estamos a favor de ello. En comparación con otras comarcas de Bizkaia, nosotros estamos discriminados. Hay que hacer una reflexión. Sabemos que hay otra moción alternativa y no entendemos qué hay en esta moción, moción presentada por iniciativa ciudadana, que no se pueda aceptar y vosotros tengáis que presentar otra. Esta es una solicitud genérica. Estamos discriminados y se solicitan unas medidas generales.

El alcalde responde que no tiene que dar explicaciones. Se van a abstener, porque no tienen nada en contra.

Fco. Jose del Pino Escobar (PSE-EE) dice que no tiene nada en contra de esta moción y que hay están las dos.

A continuación se procede a la votación con el siguiente resultado: votos a favor tres (3 EH-BILDU) y seis abstenciones (5 EAJ-PNV y 1 PSE-EE), por lo queda aprobada la moción.

**6. APROBAR, SI PROCEDE, MOCIÓN CONJUNTA PRESENTADA POR EAJ-PVN Y PSE-EE-PSOE SOBRE EL PEAJE DE AP8**

Jarraian Alkateak irakurtzen du mozioa, hitzez-hitz diona:

*A8ko bidesariei buruzko mozioa*

*AP8 autobidea da Durangaldean bidaiatzeko bide arinik nagusiena. N-634 errepidearen alternatiba da Bilborako noranzkoan zein Gipuzkoarakoan .*

*N-634 errepide zaharra da eta, herriguneak zeharkatzeaz gain, oso trafiko dentsitate handia jasan behar izaten du, eta errepide horretatik leku batetik bestera joateko denborak sarri askotan oso luze bihurtu ohi dira.*

*AP8 autobidea, N-634 errepidearen alternatiba gisa erabiltzeak gastu handia suposatzen du Durangaldeko erabiltzaileentzat. Bizkaiko Foru Aldunditik beherapen batzuk jarri diren arren, gure ustetan beherapen hauek berrikusi eta hobetu ahalko lirateke, eskualde honetako biztanleriak errepide hau baldintza ekonomiko hobeekin erabiltzerik izan dezan.*

*Arestian esandakoagatik guztiagatik, hurrengo mozioa aurkezten dugu osoko bilkuran onartzeko :*

*Berrizko Udalak adierazten du kezkatuta dagoela A8 autobideko bidesariaren igoerak Durangaldea eskualdeko ohiko erabiltzaileentzat suposatzen duen gastuagatik, bereziki Durangaldetik Bilborako egiten diren bidaietan .*

*Berrizko Udalak BFari eskatzen dio A8 autobidea etengabe erabiltzeak eskualdeko erabiltzaileentzat suposatzen duen gastu handia arintzeko neurriak hartzea, dela hobariak aplikatuta, dela bide alternatiboak hobetuta edo egoera konpontzeko beste proposamenak bideratuta .*

*Berrizko Udalak BFari eskatzen dio al bait arinen arazoa konpontzeko egon daitezkeen alternatibek*

Seguidamente el Alcalde da lectura a la moción, que copiada literalmente dice:

*Moción relativa a los peajes de la A8*

*La AP8 es la principal vía rápida de comunicación en la comarca de Durangaldea, alternativa a la N-634 en el tráfico rodado tanto en dirección Bilbao como en sentido Gipuzkoa.*

*La N-634 es una vía de trazado antiguo que, además de atravesar zonas pobladas, soporta una densidad de tráfico importante, haciendo que el tiempo a emplear en los desplazamientos por ella sea en ocasiones considerable.*

*El uso de la AP8, alternativa a la N-634, por tratarse de una vía de peaje, implica un desembolso económico para los usuarios vecinos de Durangaldea. Si bien desde la Diputación Foral de Bizkaia se han establecido diversos descuentos, estimamos que éstos pueden ser revisados y mejorados, para que la población de la comarca pueda acceder a esta indispensable vía de comunicación en unas mejores condiciones económicas.*

*Por todo lo anterior, presentamos para su aprobación la siguiente moción:*

*El Ayuntamiento de Berriz muestra su preocupación con el incremento de gasto que la subida del precio del peaje de la autopista A8 supone para los usuarios habituales de la comarca de Durangaldea, principalmente para los trayectos desde Durangalde a Bilbao.*

*El Ayuntamiento de Berriz solicita a la DFB que se adopten medidas para paliar el alto grado de desembolso económico que el uso continuado de la A8 supone para los usuarios de la comarca, ya sea mediante aplicación de bonificaciones, mejora de las vías alternativas u otras propuestas de solución.*

*El Ayuntamiento de Berriz solicita a la DFB que a la mayor brevedad elabore un estudio que contemple los*



*ekonomian eta trafikoan eragin ditzaketen ondorioen azterketa egin dezala, A8 autobidea erabili ohi duten erabiltzaileei suposatzen zaien kostea murrizteko*

Karmen Amezua Urzelaik (EH-BILDU) dio eurak be ez dutela azalpenik eman beharrik.

Ondoren, bozketa egin da eta emaitza: aldeko botoak sei (5 EAJ-PNV eta 1 PSE-EE) eta abstentzioak hiru (3 EH-BILDU), beraz mozioa onartzen da.

Karmen Amezua Urzelaik (EH-BILDU) galdetzen du ia hau zelan tramitatzen den. Mozio biak onartu direlako.

Idazkariak azalpena ematen du. Osoko bilkurak biak onartu dituzenez, horrela bidaliko dira Foru Aldundira.

## **7. ONARTU, HALA BADAGOKIO, EH-BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ESKOLA JANTOKIARI BURUZKOA**

Jarraian Karmen Amezua Urzelai, EH-BILDUren izenean irakurtzen du mozioa, hitzez-hitz diona:

### **EHBILDU BERRIZ: ESKOLA JANTOKIAREN INGURUKO MOZIOA**

*Azken asteetan Olea Kultur Elkartek antolatutako ESKOLA JANTOKIA ALTERNATIBAK hitzaldiaren harira, gaia Berrizen hizpide izaten ari da, are gehiago Lehiaren Euskal Agintaritzak 18 milioi euroko isuna jarri dienean catering zerbitzua ematen duten zortzi enpresei. Gaur egun Berrizen daukagun ereduak hobetu daitekeela argi geratu zen aurrez aipatutako hitzaldian, hizlari zein hurbildutako herritarren ekarpenetan. Aldaketaren lehen pausuak lagundu asmoz, Berrizko EhBilduk mozio hau aurkeztea beharrezko ikusten du:*

*efectos económicos y de tráfico de las distintas alternativas de solución para disminuir el coste para los usuarios habituales de la A8 de la comarca de Durangaldea.*

Karmen Amezua Urzelai (EH-BILDU) dice que no tienen nada que decir.

A continuación se procede a la votación con el siguiente resultado: votos a favor seis (5 EAJ-PNV y 1 PSE-EE) y tres abstenciones (3 EH-BILDU), por lo queda aprobada la moción.

Karmen Amezua Urzelai (EH-BILDU) pregunta como se van a tramitar las mociones, ya que ambas han sido aprobadas.

La Secretario responde que se remitiran a la Diputación Foral ambos acuerdos.

## **7. APROBAR, SI PROCEDE, LA MOCIÓN PRESENTADA POR EH-BILDU SOBRE EL COMEDOR ESCOLAR.**

Seguidamente Karmen Amezua Urzelai en representación de EH-BILDU procede a dar lectura a la moción, que copiada literalmente dice:

### **EHBILDU BERRIZ: MOCIÓN SOBRE EL COMEDOR ESCOLAR**

*Al hilo de la conferencia que ha organizado la asociación cultural Oka estas últimas semanas, el tema de la gestión de comedor es tema de conversación en Berriz, más aún cuando la Autoridad Vasca de Competencia ha multado con 18 millones de euros a ocho empresas que ofrecen servicio de catering. En la mencionada charla quedó claro que se puede mejorar el modelo que tenemos en Berriz según comentaron las/los conferenciantes y los ciudadanos/as que participaron en tal evento. Y como primer paso para ese cambio, Berriz EhBildu ve necesaria*

## **EGUNGO EGOERA:**

*Berrizen bi ikastetxe ditugu, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako, bakoitzak bere jantokia duelarik. Lehen hezkuntzako jantokiak sukaldea du eta jakiak bertan sukaldatzen dira, generoa kanpotik ekartzen duelarik catering enpresa batek. Bigarren hezkuntzako ikastetxeak ez du sukalderik, beraz kanpoko enpresak jakiak sukaldatuta ekartzen ditu jadanik eta bertako jantokian banatu egiten dira. Lehen hezkuntzako jantokian batzuz beste 400 ikaslek jaten dute egunero eta bigarren hezkuntzako jantokian 80k.*

*Langileei dagokionez, alde batetik lehen hezkuntzako sukaldeko sukaldariak daude, Eusko Jaurlaritzaren menpeko langileak direlarik; beste alde batetik bi jantokietan zaintzaileak daude, hauek enpresaren menpeko langileak direlarik.*

*Kanpoko enpresa horren zerbitzua ordaintzeko, beka gabeko ikasle bakoitzeko 4,6€ ordaintzen du eguneko familiak. Eusko Jaurlaritzak, horrez gain, enpresari zenbat ordaintzen dion jakiterik ezinezkoa gertatu zaigun arren, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuretan esandakoaren eta hedabide ezberdinetan agertutako informazioaren arabera, gutxienez beste horrenbeste ordaintzen duela ondorioztatu dezakegu. Beraz, 9-10 € kostua ordainduko litzateke eguneko eta ikasleko. Aurreko datuei erreparatu, Berriz mailan, jantokiak egunean, gutxi gora behera, 4.400€ko diru sarrera suposatzen dio catering enpresari, 88.000€ hilabetean, 710.000 € urtean.*

*Laburbilduz, kanpoko enpresa batek erabakitzen du umeez zer jaten duten, jakiak non erosten diren, nori erosten zaizkion eta ikasleak jantoki denboran zaintzeko nor kontratatzen den eta zer irizpiderekin; zerbitzu hauen truke 88.000€ kobratzen du hileko, gutxi gora behera.*

## **ALTERNATIBA ETA ONURAK:**

*Gure ustez egokiena jantokien kudeaketa Berrizen*

*la presentación de esta moción:*

## **SITUACIÓN ACTUAL:**

*En Berriz tenemos dos colegios, en primaria y secundaria, cada uno con su respectivo comedor. El comedor de primaria tiene su propia cocina. La empresa de catering trae el género de fuera y se cocina ahí. En el comedor de secundaria no hay cocina, la empresa externa trae los alimentos cocinados y el reparto se hace en el comedor. En el comedor de primaria asisten unos 400 alumnos/as diariamente mientras que en el comedor de secundaria 80.*

*En cuanto a las trabajadoras, por una parte están las cocineras de la cocina de primaria, trabajadoras del Gobierno Vasco y por otra parte las cuidadoras en los dos comedores, trabajadoras de estas empresas de catering.*

*Para pagar los servicios de esa empresa externa, cada familia que no percibe beca, paga 4,6€ por día y por cada alumno/a. Además, es imposible saber los que Gobierno Vasco paga a la empresa. Según datos mencionados en el Parlamento y distintos medios de comunicación, por lo menos paga otro tanto. En consecuencia, el coste de alumno/a por día es de 9-10€. Según estos datos, en Berriz, el comedor genera un ingreso de 4.400€ diarios a esa empresa de catering, 88.000€ mensuales, 710.000€ anuales.*

*Concretando, la empresa externa decide el menú de los niños/as, dónde comprar, a quién comprar y los criterios de contratación para el cuidado de los alumnos/as en el tiempo de comedor. A cambio de este servicio, cobra más o menos 88.000€.*

## **ALTERNATIVAS Y BENEFICIOS:**

*Según nuestra opinión, es posible la gestión del comedor*

egitea litzateke. Berrizen erabakitzea gure umeez zer jango duten, jaki hauek tokiko ekoizleei edo dendei erostea, eta umeak zaintzeko nor eta zein irizpiderekin kontratatzen den adostea. Azken finean Berrizko gurasoek ordaintzen duten diruak, Berrizko gizartearen garapenari mesede egin diezaion.

Lan horretan, Berrizko udalak aurrera pausu bat eman beharko lukeela uste dugu eta proiektu honetako aktore ezberdinekin batera, ikastetxe, guraso, jantokietako langile, dendari, eta ekoizleekin, Berrizentzako estrategikoa den herri proiektu ausart eta berritzaile bat martxan ipini.

Aurreko guztiagatik, mozio honen bitartez Berrizko EhBildu taldeak Berrizko Udalbatzari erabaki hauek har ditzan eskatzen dio:

1. Berrizko ikastetxe, jantokietako langile, ekoizle, merkatari, eta guraso elkarteekin batera, jantokiak modu zuzen baten kudeatzeko helburua edukiko duen lantalde bat sortu eta kudeaketa zuzen hau lortzeko herri proiektu integral bat diseinatzea. Lantalde hau Berrizko Udalbatzako ordezkari batekin osotuko zan eta Udalak bi hilabeteko epea baino lehen deituko du lehen bilera.
2. Aurreko lantaldearen esku beharrezkoak diren baliabideak ipintzeko konpromezua hartzea, herri proiektu hau martxan ipini bitartean.
3. Berrizko denda, ekoizle eta jantokien arteko koordinazio lanak egitea behin proiektua martxan ipini ostean.
4. Proiekturako finantziarioa lortzeko Urkiola Landa Garapenerako Alkartean, Bizkaiko Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan, zein lantaldeak egokia deritzon beste erakundeetan berau aurkeztea.
5. Menua ordaintzeko arazoak dituzten familiak diruz laguntzeko konpromezua hartzea.

Amaitzeko, proiektu hau aurrera atara ahal izateko Berrizko EhBilduko zinegotzi eta partaideak lan egiteko prest eta gogotsu gaudela esatea gura dogu.

en Berriz. Que decidamos lo que comerán los alumnos/as, poder comprar estos alimentos a proveedores y comerciantes del municipio y decidir los criterios de contratación de los cuidadores/as. Al fin y al cabo, el dinero que pagan los padres/madres de Berriz que repercute en el desarrollo del municipio.

En este proyecto, el ayuntamiento de Berriz debiera dar un paso más y poner en marcha un plan estratégico innovador junto a los demás agentes (colegio, padres/madres, trabajadores/as del comedor, comerciantes y productores).

Por todo ello, EhBildu presenta esta moción para que la corporación de Berriz adopte estas medidas:

1. Crear un grupo de trabajo junto a los colegios, trabajadores/as del comedor, comerciantes, productores y asociaciones de padres y madres para diseñar un proyecto integral que permita la gestión directa. Este grupo de trabajo se completaría con un representante de la Corporación municipal y el ayuntamiento convocará la primera reunión antes de dos meses.
2. Compromiso para ofrecer todos los recursos necesarios para que este grupo de trabajo ponga en marcha el proyecto municipal.
3. Una vez que el proyecto esté en marcha, posibilitar la coordinación entre comerciantes, productores y comedores.
4. Para conseguir la financiación, presentación del proyecto en Diputación de Vizcaya, Gobierno Vasco, asociación del Desarrollo Rural, Urkiola y demás instituciones que se consideren convenientes.
5. Compromiso para ayudar en el sistema de becas a familias que no pudieran pagar los menús.

Y para finalizar, queremos recordar que los concejales/as y miembros de EhBildu Berriz estamos ansiosos por trabajar en este proyecto.

Alkateak dio ados daudela planteatzen den jantoki kudeaketa ereduarekin, herritarrei eta aipatu diren eragile ezberdinei onurak dakarzkienak baina "ez gagoz ados, Jauriaritzak duen eskuduntza udalak zuzenean hartzearekin. Azkenean finantzaketa egon daiteke tartean eta Jauriaritzak badu zeresana. Jauriaritzari eskatu ahal zaio horrelako kudeaketak bideragarri egitea. Bestalde, ekimen honen lidergoa inplikaturik dauden eragile sozialek izan behar dute. Gu prest gaude laguntzeko nahiz eta gauza batzuk aztertzeko egon. Helburuekin bat gagoz baina hausnarketa sakonagoa behar dugu gai honen harira; besteak beste, Urkiola Landa Garapenera finantzaketa eskatzearena." Urkiola Landa Garapena koordinazio lanetan ari da Markinan; prezioak ezartzen, dendari eta gainontzeko ekoizleekin...Eragile garrantzitsu bat izan daiteke baina hausnarketa gehiago behar da.

Gaur finkatu dezakegu data bat. Apirilaren 14an, batzorde orokor horretan gai-zerrenda moduan jar dezakegu.

Gorka Camara Hierro (EH-BILDU) dio "Jauriaritzak ez duela honen eskuduntza. Jauriaritzari eman zaio. Ez da inorena eta gurea dena berreskuratu nahi dugu. Inplikaturik daudenak hartu behar dute lidergoa. Gure ustez, herria da eragile nagusia. Gero, udalak kanpainak egingo ditu herrian erosteko, herriko produktuak kontsumitzeko.. eta gu ados egongo gara; baina nekez egongo da, sektore honi onura gehiago ekarriko dion honelako ekimenik".

"Udalbatzak bere kabuz egingo du hausnarketa? Horrela hutsuneak egongo dira. Eragile guztiekin egin egin beharko dugu; besteak beste guraso elkarte, ekoizle, jantokiko langile" gaineratu du Gorkak.

"Urkiola Landa Garapena aipatu duzu. Bere gerenteak hitzaldi horretan bere burua eskaini zuen.

El Alcalde dice que están de acuerdo con la gestión que se plantea, ya que reporta beneficios para los ciudadanos/as y los promotores, pero que no están de acuerdo con que el Ayuntamiento coja las competencias que tiene Gobierno Vasco. Ya que es el tema de la financiación, en la cual Gobierno Vasco tiene que decir. Se les ha solicitado para que la gestión sea más viable. Por otro lado, el liderazgo de esta iniciativa ha de estar en los diferentes promotores. Estamos dispuestos a ayudar, pero hay algunas cosas que se deberían de analizar. Estamos de acuerdo con los objetivos, pero hay que hacer un análisis más profundo. Por otro lado, se podría solicitar a Urkiola Landa Garapena la financiación del proyecto, ya que ellos llevan a cabo las labores de coordinación en Markina: estableciendo los precios con los comerciales y los productores. Podría ser un importante promotor, pero hay que estudiarlo.

Hoy podemos poner fecha a una Comisión General para el 14 de abril en la que tratar este tema.

Gorka Camara Hierro (EH-BILDU) responde que no es competencia del Gobierno Vasco, sino que se le cedió y ahora sólo es recuperar lo que en su momento se cedió, dando el liderazgo al pueblo. Luego el ayuntamiento realizará campañas para que se compre en el pueblo, productos del pueblo .... y nosotros estamos de acuerdo, pero difícilmente habrá otra iniciativa que reporte más beneficios al sector.

¿El pleno va a reflexionar por su cuenta? Así se darán carencias, se debería de llevar a cabo con todos los promotores y entre ellos las asociaciones de padres, los productos y los trabajadores del comedor.

"Has mencionado a Urkiola Landa Garapena y en la charla el gerente de la misma se ofreció para la gestión

Badakigu Markinan zertan ari diren eta dauzkaten arazoak; eta Jaurlaritzak jarri dituen oztopoak, nahiz eta proiektu pilotu bat izan”.

“Guk lantalde bat sortzea planteatzen dugu, Berriz herri moduan proiektu hau martxan jartzeko egin beharrekoak denon artean pentsatzeko”.

“Helburuekin ados egonda, ezin dugu ulertu nola ez duzuen eskaera onartzen. Eragile guztien lantaldea osatzearena baino ez denean”.

Karmen Amezua Urzelaik (EH-BILDU) gehitu nahi du, partehartzea horrela ulertzen dutela. Proiektu bat martxan jartzeko, eragile guztien partehartzea ezinbestekoa dela. Mozioa orain 3 aste aurkeztu zutela eta udalbatzan kontrastatzeko denbora egon dela.

Gorka Camara Hierrok (EH-BILDU) gaineratzen du, mozioa idaztean ahaztu zitzaizela baina 2 urteko gelak be jantoki zerbitzua duela eta hori be kanpoan sukaldatzen dutela. Eta hori be, beste arrazoi bat dela.

Alkateak dio filosofiarekin bat datozela eta aipatu diren eragile guztiak hor dagozala. Euren garrantzia dutela. Baina bertan aipatzen diren zenbait puntu sakonago aztertu behar direla. Eta konpromisoa hartzen dutela apirilaren 14an, puntu horiek aztertzeko.

Karmen Amezua Urzelaik (EH-BILDU) erantzun dio, horrela bada eurak aurkeztutako mozioaren alde bozkatzeko.

Fco. Jose del Pino Escobarrek (PSE-EE) dio bera konforme dagoela mozioarekin. Baina udal moduan gehiago hausnartu beharko dugula, eta eragile guztiak hitz egin beharko dugula, eta beste udalerrri batzuetako esperientziak ikusi.

Valentin Esteban Gutierrezek (EH-BILDU) be berresten du eta herritarrek eskatutako ekimen bat bada, udalak lagundu behar duela. Udalak ezin du bere kabuz

del proceso. Conocemos la labor que se esta llevando a cabo en Markina y los problemas que tienen; y los impedimentos del Gobierno Vasco a este proyecto piloto.

Nosotros, EH-BILDU, planteamos crear un grupo de trabajo, para que Berriz como pueblo ponga en marcha este proyecto”.

“No comprendemos cómo estando de acuerdo con los objetivos no la aceptais, sólo sería la creación de un grupo de trabajo con todos los promotores”.

Karmen Amezua Urzelaik (EH-BILDU) quiere añadir que ellas/ellos entienden así la participación ciudadana, en la que para poner en marcha un proyecto toman parte todas las partes. Esta moción se presentó hace 3 semanas y han tenido tiempo suficiente para estudiarla.

Gorka Camara Hierro (EH-BILDU) quiere agregar, que al redactar la moción se le olvido la aula de 2 años, la cual también tiene comedor y la comida se trae cocinada. Esta sería otra razón.

El alcalde responde que estan de acuerdo con la filosofía y que estan representadas todas las partes y eso es importante. Pero considera que varios de los puntos, se debieran de estudiar con más profundidad y que se compromete a que el día 14 de abril se estudien esos puntos.

Karmen Amezua Urzela (EH-BILDU) le dice que en ese caso vote a favor de la moción.

Fco. Jose del Pino Escobar (PSE-EE) dice que está de acuerdo con la moción, pero como ayuntamiento que se debería de estudiar más profundamente y se debería de hablar con todas las partes y ver la experiencia de otros de municipios.

Valentin Esteban Gutierrez (EH-BILDU) incide en que es una iniciativa popular, solicitada por los ciudadanos/os y el ayuntamiento debe de ayudar. El

erabaki. “Badirudi zuek partehartzaile prozesuaren kontra zaudetela. Nork erabaki behar du, gehiengoak, alkateak edo eragile guztien artean?. Beharbada monopolizazioa kentzeko beldurra dago. Dinamika hau apurtu behar da. Beti gaude berdin. Gauzak zuen nahi duzuen moduan egin behar direla dirudi. Ez diguzue aukerarik ematen. Horrela ezin dugu aurrera egin”.

Alkateak dio demagogiarekin jokatzeari erraza dela. “Guk esaten duguna da, hemen puntu batzuk daudela alde aurretik hausnartu behar direnak. Hori egin ostean, prest gaude prozesu partehartzaile bat bideratzeko”.

Fco. Jose del Pino Escobarrek (PSE-EE) dio saku berean sartu dituela alderdi bi (EAJ-PNV- eta PSOE-EE). “Gu prozesu partehartzaileetan aitzindari gara. Zuek ez etorri guri azalpenik ematen”.

Karmen Amezua Urzelaik (EH-BILDU) erantzuten du, “zuk ezin duzu guri diskurtsoa mugatu. Guk nahi duguna esango dugu. Esaten duguna argudiatzen dugu. Zuek horri demagogia deitzen diozue. beharbada ez daukazue argudiorik”. Badakizue zer den demagogia, ezta?”

Fco. Jose del Pino Escobarrek (PSE-EE) dio aipamen hori lotsagarria dela.

Gorka Camara Hierrok (EH-BILDU) dio mozio honetan aztertu beharreko puntuak zeintzuk izango diren jakin nahi duela.

Alkateak dio data jarrita dagoela eta horren gainean hitz egingo dutela.

Ondoren, bozketa egin da eta emaitza: aldeko botoak hiru (3 EH-BILDU), kontrako botak bost (5 EAJ-PNV) eta abstentzio bat (1 PSE-EE), beraz mozioa ez da onartzen.

Besterik gabe, batzarra amaitu da, ondoren alkateak, zinegotziek eta idazkariak akta sinatu dugu, eta nik horren fede ematen dut.

ayuntamiento no puede decidir unilateralmente. Quién tiene la última palabra: la mayoría, el alcalde o las/los agente implicados. Tal vez tienen miedo a perder el monopolio, pero hay que romper esta dinámica, siempre estamos igual, parece que las cosas hay que hacerlas como vosotros quereis, no nos dejais ninguna opción, así no podemos avanzar.

El alcalde responde que es pura demagogia. Ellos lo único que dicen es que hay algunos puntos que se deberían de estudiar previamente y que posteriormente estarían de acuerdo en lanzar un proceso de participación ciudadana.

Fco. Jose del Pino Escobar (PSE-EE) dice que han metido a los dos grupos (EAJ-PNV y PSE-EE) en el mismo saco y ellos han sido precursores de los procesos participativos, “no vengais a dar clases”

Karmen Amezua Urzelai (EH-BILDU) responde “tu no puedes limitar nuestro discurso, nosotros decimos lo que queremos, argumentando. Vosotros a eso llamais demagogia, tal vez no teneis argumentos”. ¿Sabeis que es demagogia?

Fco. Jose del Pino Escobar (PSE-EE) responde que le parece vergonzoso.

Gorka Camara Hierro (EH-BILDU) dice que le gustaría saber cuales son los puntos de esta moción a estudiar.

El alcalde le responde que ya hay fecha para tratar sobre el tema.

A continuación se procede a la votación con el siguiente resultado: votos a favor tres (3 EH-BILDU), votos en contra cinco (5 EAJ-PNV) y una abstención (1 PSE-EE), por lo que no se aprueba la moción.

Y sin más asuntos a tratar se levanta la sesión, firmando a continuación el Alcalde, los Concejales y el Secretario que doy fe del acto.

ZINEGOTZIAK

ALKATEA  
Rolando Isoird Refoyo

**FEDE EMATEN DUT, IDAZKARIAK**  
Amaia Arbulu Ormaetxea